

**OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEAREN XEDAPENA, OSATEK-EN TEKNIKARI MANIPULATZAILEAREN KATEGORIAN, LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKO IZATEKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ HAUTATZE-PROZESUKO EPAIMAHAIA ALDATZEKO.**

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartzen dira OSATEK-en destinoa duten teknikari manipulatzailearen kategoriako lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2023ko martxoaren 23ko xedapen bidez, hautaketa-prozesuko epaimahaia izendatu zen, OSATEK-en teknikari manipulatzailea kategorian, lan-kontratuko langile finko izateko merezimendu-lehiaketa bidez.

Horregatik, ematen zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau

**XEDATZEN DUT**

**Bat.-** Xedapen honen xedea da OSATEK-en teknikari manipulatzailea kategorian, lan-kontratuko langile finko izateko merezimendu-lehiaketaren bidez hautatze-prozesuko epaimahaiaren osaera aldatzea, Yolanda Ramos Herrera bokalاک uko egin ondoren.

**Bi.- Epaimahaia**

Honako pertsona hauek osatuko dute epaimahaia:

Presidentea: M<sup>a</sup> José Lorenzo Domínguez.

Bokalاک: Yolanda Estevez Muñiz.  
Nuria Moraza Gastón.  
Carmen Calderón Fernández.

Idazkaria: Begoña Fernández Ruanova.

**Hiru.- Gauzatzea.**

Sinatzen den egunean jarriko da indarrean xedapen hau. Jakinaraz bekie interesdunei.

**Lau.- Argitalpena**

Xedapen hau OSATEK-en webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/>) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratuko da.